

Artzaina eta mendi-lehoia

- 1 Aita artzaina zen eta mendia zuen bere etxea. Frantziako Pirinio lainotsuetan hasi zen eta antzera segitu zuen ia bere bizialdi osoan, Sierra of Nevada bakartian.
- Mutikoa nintzela, udaro mendira bisita egitera joaten nintzaion.
- Behin, aitarekin nengoela, mendi-lehoiek artaldeari eraso ziotela ohartu ginen. Lehoiek
- 5 beren hilketa egina zutelarik, artaldea bakean utziko zutelakoan zegoen aita, baina, bat-batean, zaldien trosta entzun genuen urrutian. Aitak belardira zorroztu zituen begiak. Intzirika hasi zen Barbo txakurra, baina aitak agindu bizkor batez isilarazi zuen. Bizkor jaitsi ginen. Aitak dozena erdiren bat metroko aldea atera zidan belardira iritsi nintzenerako. Lurrera begira nindoan, eta burua altxatu nuenean ikusi nuen lehoia.
- 10 Gogoan dut nola hura libre ikustean aparteko zirrara bat sentitu nuen eta, ondoren, barrena eta aurpegiak, biak izoztu zitzaizkidala.
- Segundo batzuetan elkarri zorrotz begira egon ziren. Lehoiak alde batera eragin zion buruari, ia jakin-minez, eta orro ikaragarria egin zuen. Gero, poliki-poliki, aitak makila jaso eta lehoiarengana hurbiltzeari ekin zion. Berriro egin zuen orro, oraingoan abisu
- 15 gaiztoa eginez, eta, bizkortasun txundigarritz, kuzkurtu egin zen.
- Aitaren mugimenduetan ez zen ageri zalantzaren arrastorik. Behin ere ez zuen egin ikararik pauso ematean. Artean makila gora jasota zeukan, ez bere burua babesteko, jotzeko baizik, eta mehatxuzko jarrera zeukan. Elkarrengandik oso tarte laburrera zeduela, lehoia kuzkurtu eta atzera luzatu zen, sinesteak lana ematen bazuen ere. Begiak
- 20 sutan gorituak zituen. Aitak, gupida gabe, aurrera jarraitzen zuen.
- Lehoia jauzi egiteko zorian zegoen. Nire buruak prestatua zuen hurrengo imajina, aita atzapar-zalaparta itsu batean erortzen ikustekoa. Baina ez zen gertatu halakorik. Arrazoiren batengatik, bazirudien lehoiak zuzenean beragana jauzi egin zuela eta, gero, bere gorputza bihurtu zuela, aitaren ondoan kokatzeko.
- 25 Eta ondoren, ia mugimendu berean, ihesari eman zion lasterka batean. Ez zen erretiratu; alde egin zuen urrats luzeka, presarik gabe, zuhaitzen aldera, atzera begiratzuz eta tarteka marru eginez, bere buruarekiko errespetu-maila bati eutsiko balio bezala.
- Aitak ez zion jarraitu. Bira eman zuen eta erruki berezi
- 30 bat zeukan aurpegian, erabat desagertu gabea artean, lehoiaren lotsarengatik nahigabeturik balego bezala, eta ezin izan nion hitzik esan; izan ere, laster igarri nion ausardiak ez zuela hartan inolako parterik izan.

ROBERT LAXALT


Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan (moldatua)

- 1 Adierazi zein diren testuaren hasiera, korapiloa eta amaiera.

Hasiera: _____. lerrotik _____. lerroraino.

Korapiloa: _____. lerrotik _____. lerroraino.

Amaiera: _____. lerrotik _____. lerroraino.



2 Erantzun.

Nongoa zen artzaina eta non egin zuen ia bizialdi osoa? _____

Zer sentitu zuen mutilak lehoa aske ikustean? _____


Zergatik zeukan aitak erruki-aurpegia lehoa joan zenean? _____

3 Esan (E) egia ala (G) gezurra diren.

- ☐ Erasoaren ondoren, mendi-lehoiek artaldea bakean utziko zutela pentsatu zuten.
- ☐ Kontalaria udaberririo joaten zen aita bisitatzer.
- ☐ Aitaren mugimenduek ez zuten zalantzarik adierazten.
- ☐ Lehoa joan eta gero, semea bibaka hasi zitzaion aitari.



4 Osatu hitz gurutzatuak ipuin bat osatzen duten elementuekin.



1. Kontakizuna, bereziki laburra.
2. Hasiera, korapiloa eta...
3. Pertsonaia nagusia.
4. Ipuin bateko zati nagusia; gertaeren multzoa.
5. Ipuin bateko izaki bizidunetako bakoitza.
6. Gertatu den gauza.

5 Esan esaldi hauek ipuin baten hasierari, korapiloari ala amaierari dagozkion.

«Munduan asko bezala, baziren bi bele»: _____

«Leiho estu batetik sartu ziren gazteluan»: _____

«Ongi bizi baziren, ongi hil ziren»: _____

«Basoa zeharkatzean, herensuge bat azaldu zitzaion»: _____

«Geroztik pasatuez, ez dut izan berririk»: _____